

PIRATEN OSAGARRIAK


Arropa dotoreak bai, baina horrekin bakarrik ez ziren konformatzen. Osagarriak behar izaten zituzten. Batzuk dotore itxura emateko bakarrik balio zuten, beste batzuk zein ausartak ziren adierazteko eta beste batzuk burrukarako oso erabilgarriak zirelako.

Ziur nago gauza berri asko ikasiko dituzula. Irakurri, irakurri...



- **EGURREZKO HANKA:** Hanka galtzen zutenean haren lekuan egurrezkoa jartzen zuten.

- **KAKOA:** Oso pirata gutxi eramaten zuten, burrukaren batean besoa galtzen bazuten soilik. Izan ere lo egiterakoan oso arriskutsua zen, begi bat ateratzeko arriskua bait zuten, eta burrukarako ere ez zen oso erabilgarria.



- **BEGIKO PARTXEA:** Gutxi batzuek begia galtzen zutenean erabiltzen zuten kristalezko begia jartzea baino merkeagoa zelako. Baina zergatik erabiltzen zuten ia denek? Partxea zuten begia iluntasunera ohitua izateko. Leku ilunen batean eraso egin behar bazuten partxea begiz aldatu eta etsaiak baino azkarragoak izaten ziren burrukan.

- **BELARRITAKOAK:** Ausarta zenaren adierazle zen urrezko uztai izatea belarritik zintzilik. Batzuek esaten zuten hauek eramanda punteria hobea izaten zutela eta gainera zortea ematen zutela. Gainera, hiltzen zirenean beraien hileta ordaintzeko adina diru izaten zuten urrezko belarritako bakoitzarekin.



- **ZAPIA EDO KAPELA:** Egoeraren arabera koloretako zapia edo kapela eramaten zuten. Batzuek hegaztien lumak jartzen zituzten bertan naufragioetatik babesten zituztela pentsatzen zutelako.



- **MASKOTAK SORBALDAN:** Batzuetan loroa edo tximua eramaten zuten. Hauek oso animalia bereziak zirenez aukera zutenean saldu egiten zituzten.



Bilatu jarraian datotzen hitzak hizki zopan

PIRATEN OSAGARRIAK

BELARRITAKOAK
KAKOA
LOROA
TXIMUA
EGURREZKO HANKA
KAPELA
PARTXEA
ZAPIA

